BIZITEGI ERAIKINA — EASO 35

C MAILA



Egilea eta data: Pedro Gaiztarro; 1923.

Deskribapena.
Mehelinen artean kokaturiko eraikina. Behe oina, lau goi oin, gehi bi jasodura atzeraemanak ditu. Behe oina eta lehen oina harlandudun hormigoiz eraikiak; 2., 3. eta 4. oinak adreilu esmalteztatuz. Mosaikoa hirugarren oineko goialdean. Hormigoizko begiratokia ezkerreko baoan. Konposizio simetrikoa eta proiektu komuna Easo 37rekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta olana eta abarren ezarpena, Plan Berezi honetako Ordenantza Orokorretako babes maila horretarako ezarritako gai horiek erregulatzen dituzten irizpide orokorretara egokituko da.

2.- Berariazko erregimena.
A.- Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemanak (5. eta 6. goi oinak).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlandua; adreiluzko hormatalak; mosaikoak; leihoburuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez.
D.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari loturikoak izan ezik, hala badagokio, begiratokiaren tratamenduarekin erlazionaturikoak barne hartuz (Ordenantza Orokorrak).